



**Kontrol ofizialak eta
bestelako jarduera ofizial
batzuk ikuskatzeko
prozedura**

EKOP 2026-2030

2025eko azaroa, 1. bertsioa



EKOP

Euskadiko Elikagaien
Katearen Kontrol
Ofizialerako Plana
2026-2030



ÍNDICE DE CONTENIDOS

ÍNDICE DE CONTENIDOS	2
1.-Sarrera	3
2.-Xedea eta aplikazio-eremua.	3
3.- Ikuskapena	3
3.1. Dokumentuak ikuskatzea:	4
3.2. In situ ikuskatzea	4
3.3. Ikuskapenaren prozedura	4
3.4. Ez-betetze motak	4
4.- Ez-betetzeetan hartu behar diren neurriak	4
5.- Ikuskapen-jardueren txostena	5
5.1. Ikuskapenaren emaitzak	5
5.2. Ikuskapenaren adierazleak	6
I. ERANSKINA: Urteko ikuskapen-ehunekoa kontrol-programa bakoitzerako	8
II. ERANSKINA: Ikuskapen dokumentalerako kontrol-orria	9
III. ERANSKINA: In situ ikuskapen dokumentalerako kontrol-orria	11

1.-Sarrera

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [2017/625 \(EB\) Erregelamenduak](#), elikagaiei eta pentsuei buruzko legeriaren eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitariari buruzko legeriaren aplikazioa bermatzeko egindako kontrol ofizialei eta bestelako jarduera ofizialei buruzkoak, azpimarratzen du beharrezkoa dela kontrol ofizialen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzea gainbegiratzeko, ebaluazio- eta auditoretza-mekanismoen bidez.

Erregelamendu horren 4. artikulua arabera, kontrolak eskumena duten langileek egin behar dituzte, eta, beraz, horretaz arduratzen diren langileek prestakuntza egokia dutela eta haien lana berrikusten dela ziurtatu behar da.

Gainera, [2021/C 78/01 komunikazioaren](#) bidez, ikuskapeneko langileek, gaituak eta ondo prestatuak izateaz gain, ikuskatuak izan behar diren ideia indartzen da, kontrolak eraginkorrak direla eta Europar Batasuneko legeriarekin bat datozela bermatzeko.

Hortaz, Europako araudian ezarritako kontrol- eta auditoretza-mekanismoek berekin dakarte ikuskapen eta kontrolen ardura duten langileak ikuskatuak eta ebaluatuak izan behar direla, kontrol ofizialen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko.

Kontrol ofizialak ikuskatzeko prozeduraren zeregin nagusia da kontrolak egiteaz arduratzen diren langileen jarduna ebaluatzea, eta ezarritako estandarrak eta helburuak betetzen direla ziurtatzea, desbideratzeak denbora errealean identifikatuz eta zuzenduz.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak egindako Kontrol Ofizialeko Sistema Ikuskatzeko Gidan oinarritzen da dokumentu hau.

2.-Xedea eta aplikazio-eremua.

Prozedura honen xedea da kontrol eta bestelako jarduera ofizialak gainbegiratzeko sistematika bat ezartzea, ezarritako arau, plan, prozedura eta jarraibideen arabera egiten direla egiaztatzeke, eta, beharrezkoa bada, dagozkion zuzenketak egiteko.

Hau da ikuskapena: kontrol ofizialeko agentei egindako jarduera-multzoa, funtzioak behar bezala betetzen dituztela baloratzeko, eta kontrol-programa bakoitzeko kontrol ofizialeko prozedura normalizatuak aplikatzeko.

Unitateak berak egingo du bere kontrol ofizialeko agenteen ikuskapen-prozesua, eta kontrol ofizialeko agente guztiei egin behar zaie. Zeregin horretarako gaitasuna eta ezagutza duen langileak egingo du, eta agintaritza eskudun bakoitzak gainbegiratu duen kontrol-programa ofizial bakoitzaren arduradunak izendatuko du, edo, bestela, hierarkian haren gainetik dagoen lanpostuko pertsonak.

Prozedura hau **EKOP 2026-2030** barruko programei aplikatuko zaie, zehazki, EKOP 2026-2030 Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Planaren 7.1 puntuan zerrendatutako kontrol ofizialeko programei.

3.- Ikuskapena

Ikuskapenak aukera ematen du kontrolak ezarritako plan, prozedura eta jarraibideen arabera egiten ari direla egiaztatzeke. Beraz, ikuskapen- eta kontrol-zereginen arduradunek kasu bakoitzean ezarritako prozedura betetzen dela egiaztatu behar dute, eta amaitutako espedienteen dokumentuak nahiz ikuskapen-prozesu osoa b berrikusi beharko dituzte.

3.1. Dokumentuak ikuskatzea:

Egiaztatu beharreko urtean amaitutako kontrol ofizialeko espedienteak egiaztatuko dira, espediente-kopuru adierazgarri bat hautatuta. Kontrol ofizialarekin zerikusia duten dokumentu elektroniko guztiak (paperean edo elektronikoak) egiaztatuko dira, eta, kontrol-aktez gain, ikuskapenarekin loturaren bat duen informazio guztia jasoko da, hala nola laginak hartzea, halakorik balego, aztertutako parametro analitikoak edo emaitzak operadoreari jakinaraztea.

Gainera, kontrol-programa bakoitzari buruzko dokumentazio guztia berrikusiko da, honako hauek barne: lan-protokolo edo -prozedura normalizatuak, erabilitako datu-baseak edo aplikazio informatikoak, ikuskatu nahi diren operadoreak hautatzeko erabilitako sistema, egindako txostenak eta abar.

3.2. *In situ* ikuskatzea

Egiaztapenaren xede den urtean egindako ikuskapenen tokian bertan egingo da ikuskapena, urte horretan egin beharreko ikuskapenen kopuru adierazgarri bat hautatuz. Ikuskapen-prozesuan, laguntza emango zaio ikuskatzaileari.

3.3. Ikuskapenaren prozedura

Kontrol-eremu edota kontrol-programa bakoitzerako gutxieneko ikuskapen-ehunekoak autonomia-erkidego guztietarako ezartzen dira, estatu-mailako programen koordinazio-mahai edo -batzorde bakoitzean. Ehuneko horien taula dokumentu honen **I. eranskinean** dago.

Kontrol-programa betetzen dela ikuskatzeko, **II. eranskinean** (dokumentuen ikuskapena) edo **III. eranskinean** (*in situ* ikuskapena) jasotako kontrol-orria erabiliko da, eta ikuskatzen den espediente bakoitzerako bete beharko da.

3.4. Ez-betetze motak

Ikuskapenean detektatutako ez-betetzeak dira agintaritza eskudunek kontrol ofizialak egiteko ezarritako arauak, protokoloak edo bestelako jarraibideak ez betetzea.

Ikuskapenean detektatutako ez-betetzeak honela tipifikatuko dira:

- **Larriak:** kontrola baliogabetu dezakete, **II. eta III. eranskinetan** jasotako kontrol-orrietan identifikatuta daude (letra lodiz).
- **Arinak** edo txikiak: ez dute kontrola baliogabetzen.

Bi kasuetan, neurri zuzentzaile egokiak abian jartzeko eskatuko da (ikus 4. atala).

4.- Ez-betetzeetan hartu behar diren neurriak

Kontrolak gainbegiratu ondoren, agintaritza eskudunek neurriak hartuko dituzte identifikatutako ez-betetze horien aurrean. Neurri horiek indibidualak izan daitezke, edo kontrol ofizialeko agente guztientzat izan ditzakete ondorioak. Honako hauek izan daitezke, besteak beste:

A. Langileen kualifikazioa/prestakuntza

- Prestakuntza-jardueren antolaketa (orokorrak nahiz espezifikoak)
- Ikuskatzaile-talde bat zeregin espezifikoetan prestatzea (jakintza-arlo jakin batzuetan espezialistak sortzea)
- Langile berrientzat praktikaldi bat ezartzea, eta haiekin esperientzia handiko ikuskatzaile bat

B. Prozedura dokumentatuak

- Prozedura eta jarraibide eguneratuak banatzeko sistema berrikustea eta, behar izanez gero, hobetzea
- Jardunaldiak/bilerak antolatzea, prozedura eta/edo jarraibide berriak aldatzen edo sartzen badira
- Prozedurak banatzeko arduradun bat jartzea.

C. Kontrol ofizialak egitea

- Kontrol ofizialen programazioa ebaluatzea eta, beharrezkoa izanez gero, berrikustea
- Ikuskatzaile bakoitzari esleitutako lan-karga ebaluatzea, eta, behar izanez gero, birbanatzea.
- Beharrezkoa denean, gaiari buruzko lan-prozedurak eta -jarraibideak zehaztea, errazago ulertzeko eta interpretazio okerrak saihesteko.
- Espediente batean inplikaturako kontrol ofizialeko agenteen artean txostenak eta dokumentazioa transmititzeko sistema berrikustea eta, beharrezkoa izanez gero, hobetzea.
- Arlo hauetan prestakuntza ematea: ikuskapenak egitea, ez-betetzeak detektatzea, eta txostenak betetzea, zabaltzea eta artxibatzea.
- Tresna informatikoak erabiltzeko prestakuntza ematea
- Lanpostuen txandaketa.

D. Neurri zuzentzaileak hartzea

- Prozedura zehatz bat garatzea; bertan, araudiaren ustezko ez-betetzeak eta kasuan kasuko neurriak modu objektiboan jasoko dira.
- Dokumentu-sistema bat ezartzea, epeak berrikustea errazteko, neurriak gauzatu gabe daudenean

E. Neurri zuzentzaileen jarraipena

- Aktak betetzeari buruzko jarraibide argiak prestatzea, neurrien jarraipena errazteko
- Ohiko ikuskapenak egiten dituen ikuskatzailea ez den beste bati esleitzea neurri zuzentzaileen jarraipena.
- Informatika- eta/edo dokumentu-mailan neurrien jarraipena egitea erraztuko duen sistema diseinatzea.

5.- Ikuskapen-jardueren txostena

5.1. Ikuskapenaren emaitzak

Ikuskapenaren emaitzak urtero jasoko dira, estatu mailako koordinazio-unitate bakoitzak eskatzen duen formatuan, gehienetan taula-formatuan. Horretarako, MAPAk adierazle komun batzuk ezarri ditu kontrol-programa guztietarako, eta, ondoren, Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionalaren emaitzen urteko txostenaren zati orokorrean jasoko dira ekitaldi bakoitzerako.

Adierazle horiek betetzeko, kontrol-programa ofizial bakoitzean parte hartzen duen agintaritza eskudun bakoitzari buruzko informazio hau bildu beharko da:

- Egindako kontrolen kopurua
- Egindako ikuskapen dokumentalen kopurua
- *In situ* egindako ikuskapen dokumentalen kopurua

- Ez-betetzeak dituzten ikuskapen dokumentalen kopurua.
- Ez-betetze larriak (kontrola baliogabetzen dutenak) dituzten ikuskapen dokumentalen kopurua.
- Ez-betetzeak dituzten *in situ* ikuskapenen kopurua
- Ez-betetze larriak (kontrola baliogabetzen dutenak) dituzten *in situ* ikuskapenen kopurua

Gainera, kontrol ofizialeko programa bakoitzerako gutxieneko ikuskapen-ehunekoak (**1. eranskinean**) hartu beharko dira kontuan, kontrol ofizialeko programa bakoitzean egin beharreko ikuskapen dokumentalen eta *in situ* ikuskapenen gutxieneko kopurua kalkulatzeko.

- Egindako ikuskapen dokumentalen gutxieneko kopurua
- Egin beharreko *in situ* ikuskapen dokumentalen gutxieneko kopurua

5.2. Ikuskapenaren adierazleak

Bi adierazle mota ezartzen dira: betetzeari buruzkoak eta emaitzei buruzkoak; adierazleak ikuskapen mota bakoitzaren arabera bereizita (dokumentala eta *in situ*).

5.2.1.- Ikuskapena betetzeari buruzko adierazleak

Kontrol-programa bakoitzean aurreikusitako gutxieneko ikuskapen-kopurua egin ote den kalkulatzeko, adierazle hauek ezartzen dira:

- **IS1:** Ezarritako ikuskapen dokumentalen gutxieneko kopurua betetzea: egindako ikuskapen dokumentalen kopurua* 100/Egin beharreko gutxieneko ikuskapen-kopurua.
- **IS2:** Gutxieneko ikuskapen-kopurua egitea betetzea. Egindako *in situ* ikuskapenen kopurua* 100/Egin beharreko gutxieneko ikuskapen-kopurua.

IS1 eta **IS2**ren emaitzak % 100ekoak edo hortik gorakoak badira, gutxieneko ikuskapenen kopurua betetzen da.

Gainera, kontrol-programa ofizial batean agintaritza eskudun batek baino gehiagok esku hartzen dutenean, adierazle jakin batzuk ezartzen dira, kontrol-programa aplikatzen den lurralde osoan minimoak modu homogeneoan betetzen ote diren aztertzeko.

- **IS3:** Homogeneotasuna ikuskapen dokumentalen gutxieneko kopurua betetzean. Kontrolak egiten dituen agintaritza eskudun bakoitzaren **IS1** emaitzak % 100 edo handiagoa izan beharko du.
- **IS4:** Homogeneotasuna *in situ* ikuskapen dokumentalen gutxieneko kopurua betetzean. Kontrolak egiten dituen agintaritza eskudun bakoitzaren **IS2** emaitzak % 100 edo handiagoa izan beharko du.

IS1 eta **IS2** adierazleak % 100ekoak edo hortik gorakoak badira agintaritza eskudun guztietan, horiek guztiak helduko dira egin beharreko gutxieneko ikuskapen-mailara, eta, beraz, homogeneotasuna egongo da gutxieneko ikuskapen-maila betetzean. Aldiz, agintaritza eskudunen bat ez bada % 100era iritsi **IS1** edo **IS2** adierazleetan, ez da homogeneotasunik egongo eta hori konpontzeko neurriak ezarri beharko dira.

5.2.2.- Ikuskapenaren emaitzei buruzko adierazleak

Era berean, egindako kontrola baliogabetzen duten ikuskapenen bilakaera ezagutzeko, adierazle hauek kalkulatu dira:

**EKOP**

Plan de Control
Oficial de la Cadena
Alimentaria de Euskadi
2026-2030



- **IS5:** Ez-betetze LARRIAK (kontrola baliogabetzen dutenak) dituzten ikuskapen dokumentalen ehunekoa, ikuskapen dokumental guztien artetik.
- **IS6:** Ez-betetze LARRIAK (kontrola baliogabetzen dutenak) dituzten ikuskapen dokumentalen ehunekoa, ez-betetzeri ez duten ikuskapen dokumental guztien artetik.
- **IS7:** Ez-betetze LARRIAK (kontrola baliogabetzen dutenak) dituzten *in situ* ikuskapenen ehunekoa, *in situ* ikuskapen guztien artetik.
- **IS8:** Ez-betetze LARRIAK (kontrola baliogabetzen dutenak) dituzten *in situ* ikuskapenen ehunekoa, ez-betetzeak dituzten *in situ* ikuskapen guztien artetik.

Adierazle horiek aztertzea erabilgarria izango da ikuskapenean aurkitutako ez-betetze interesgarrienak ebaluatzeko, eta horren ondorioz ezartzen diren neurri zuzentzaileak abian jartzeko.

I. ERANSKINA: Urteko ikuskapen-ehunekoa kontrol-programa bakoitzerako

KONTROL-PROGRAMA	Ikuskapen dokumentalaren %		<i>In situ</i> ikuskapenen %
	Ez-betetzeak dituzten kontrolak	Ez-betetzerik gabeko kontrolak	
Arrantza-ekoizpenaren eta Akuikulturaren Higienea	% 10		% 5
Nekazaritzako higiena	% 4		% 1
Landare-osasuna *	% 3		% 1
Produktu fitosanitarioen merkaturatzea.	% 5		% 1
GEOak nahita askatzea	% 1		% 1
Higienea abeltzaintzako ekoizpen primarioan	% 10		% 1
Higienea esne gordinaren ekoizpen primarioan	% 10		% 1
Animalien ongizatea	% 10		% 1
Identifikazioa eta erregistroa.	% 10	% 3	% 1
Ugalketa-produktuak	% 100	% 3	% 1
Programa elkartua	% 100	% 3	% 1
Hondakinen lkerketarako Plan Nazionala	% 10		% 1
Animalien elikadura	% 1		% 1
SANDACH	% 10	% 3	% 1
Elikagaien merkataritza- kalitatea	Gutxienez % 5		Gutxienez % 5
Kalitate bereizia	**		**
Ekoizpen ekologikoa	**		**

* Landare Osasunaren Programan, beste jarduera ofizial batzuetarako, urtero egingo da: Prospekzioetarako, agintaritza eskudun bakoitzeko ikuskapen bat egingo du *in situ*, eta prospekzioak ez diren beste jarduera ofizial batzuetarako, agintaritza eskudun bakoitzeko ikuskapen dokumental bat eta *in situ* ikuskapen bat.

** Kalitate Bereziaren Programan eta Ekoizpen Ekologikoko Programan, ikuskapenen kopurua operadore ziurtatuen kopuruaren arabera ezarriko da.

II. ERANSKINA: Ikuskapen dokumentalerako kontrol-orria

IKUSKAPEN DOKUMENTALERAKO KONTROL-ORRIA

KONTROL OFIZIALEKO PROGRAMA

Akta zk.:

Data:

Zuzenketak egiaztatzeke lehen ikuskapena/Ikuskapena:

Identifikazioak:

Ikuskatutako operadorea:

Ikuskapena egiten duen pertsona:

ITXARONALDIA EGINGO DUEN PERTSONA

EGIAZTATU BEHARREKO IRIZPIDEAK	BAI	EZ	E/E	Oharrak
LANGILEEN KUALIFIKAZIOA/PRESTAKUNTZA				
Ikuskatzaileek beren eskumen-esparruko ezagutzak dituzte (araudia, prozedurak, etab.).				
AURRETIKO FASEA/DOKUMENTAZIOA				
Ikuskapenarekin lotutako dokumentuak eskuragarri daude, erraz eskuratzeko modukoak dira eta ordenatuta daude				
Ikuskapenean erabili beharreko dokumentuak eguneratuta daude				
Erabilitako datu-baseak eta/edo erroldak eskuragarri eta eguneratuta daude				
Ikuskatutako unitatea kontrol ofizialeko programan zehaztutako arrisku-irizpideen arabera hautatu da.				
KONTROLA GAUZATZEA				
Kontrol Ofizialaren akta erabiltzen da*				
Ikuskapenari buruzko datu guztiak betetzen dira Lekua, data, ordua, etab.				
Operadorearen datu guztiak betetzen dira sozietatearen izena, pertsona ordezkaria, helbidea, telefonoa...				
Ikuskatzailearen datu guztiak betetzen dira Izena, abizenak edo EZO (Erregistro Profesionaleko Zenbakia)				
Kontrol-dokumentuen atal guztiak behar bezala betetzen dira				
Laginak hartzea behar bezala dokumentatzen da				
E/E erantzunez gero (erantzunik ez), justifikatuta dago				
Ez-betetzeak detektatu eta sailkatzen dira				
Ez-betetzeei buruzko oharrak argiak eta laburrak dira				
Kontrolaren emaitzaren, proposatutako neurrien eta zuzenketak egiteko epearen berri ematen zaio operadoreari.				
Ez-betetzeei buruz operadoreak duen dokumentazio guztia erantsi zaio espedienteari.				

Ikuskapenari buruzko informazio guztia behar bezala artxibatzen da				
Ikuskatzaileak sinatu du akta*				
HARTUTAKO NEURRIAK				
Ez-betetze garrantzitsuenen aurrean, neurri zuzentzaileak proposatzen dira				
Ez-betetzeak konpontzeko epeak ezartzen dira, beharrezkoa bada				
Kontrolen ondorioz sortzen diren jarduketak aplikatzen dira (zehapenak, etab.), hala badagokio				

*** Bat ez badatoz, kontrola baliogabetzen duten irizpideak**

IKUSKATZAILEAREN SINADURA GAINBEGIRALEAREN SINADURA

III. ERANSKINA: *In situ* ikuskapen dokumentalerako kontrol-orria

KONTROL OFIZIALEKO PROGRAMA

BETETZEN DELA *IN SITU* IKUSKATZEKO KONTROL-ORRIA

Akta zk.:

Data:

Lekua:

Lehenengo ikuskapena/Zuzenketak egiaztatzeako ikuskapena:

Identifikazioak:

Ikuskatutako operadorea:

Ikuskapena egiten duen pertsona:

ITXARONALDIA EGINGO DUEN PERTSONA

EGIAZTATU BEHARREKO IRIZPIDEAK	BAI	EZ	E/E	Oharrak
LANGILEEN KUALIFIKAZIOA/PRESTAKUNTZA/JARRERA				
Ikuskatzaileek beren eskumen-esparruko ezagutzak dituzte (araudia, prozedurak, etab.).				
Ikuskatzailea iristean behar bezala identifikatzen da.				
AURRETIKO FASEA				
Ikuskatzaileak ikuskapenaren aurreko lana egin du (aurreko ikuskapenetako dokumentazioa berrikustea)				
Laginak hartzeko materiala prestatzen da (poteak, poltsak, zigiluak...), hala badagokio.				
Ikuskatzaileek operadoreari jakinarazi diote zer dokumentazio izan behar duen.				
DOKUMENTAZIOA				
Ikuskapenarekin lotutako dokumentuak eskuragarri daude, erraz eskuratzeko modukoak dira eta ordenatuta daude				
Ikuskapenean erabili beharreko dokumentuak eguneratuta daude				
Erabilitako datu-baseak eta/edo erroldak eskuragarri eta eguneratuta daude				
KONTROLA EGITEA/AKTA BETETZEA				
Kontrol Ofizialaren akta erabiltzen da*				
Ikuskapenari buruzko datu guztiak betetzen dira Lekua, data, ordua, etab.				
Operadorearen datu guztiak betetzen dira sozietatearen izena, pertsona ordezkaria, helbidea, telefonoa...				
Ikuskatzailearen datu guztiak betetzen dira Izena, abizenak eta/edo EZO (Erregistro Profesionaleko Zenbakia)				
Kontrol-aktaren betekizun guztiak <i>in situ</i> egiaztatzen dira				
Aktaren atal guztiak behar bezala betetzen dira				
E/E (erantzunik ez) erantzunez gero, justifikatuta dago				

Operadoreak oharrak sar ditzake aktan				
Ikuskatzaileak ikuskapen-akta sinatzen du*				
Ikuskapenari buruzko informazio guztia behar bezala artxibatzen da				
LAGINAK HARTZEA (hala badagokio)				
Laginak hartzeko akta behar bezala betetzen da				
Laginak hartzean laginketa-metodo ofiziala erabiltzen da				
Laginak gordetzeko zigiluak haien bortxaezintasuna eta estankotasuna bermatzen ditu				
Laginak baldintza egokietan kontserbatzeko neurri egokiak hartzen dira				
Operadoreari azaltzen zaio bigarren analisi bat egin daitekeela, emaitzekin ados egon ezean				
EZ-BETETZEAK				
Ez-betetzeak detektatu eta behar bezala sailkatzen dira				
Ez-betetzei buruzko oharrak argiak eta laburrak dira				
Kontrolaren emaitzaren, proposatutako neurrien eta zuzenketak egiteko epearen berri ematen zaio operadoreari.				
Ez-betetzei buruz operadoreak duen dokumentazio guztia erantsi zaio aktari.				
HARTUTAKO NEURRIAK				
Ez-betetze garrantzitsuenen aurrean, neurri zuzentzaileak proposatzen dira				
Akatsak zuzentzeko eta/edo dokumentuak aurkezteko epeak ematen dira				
JARRAIPENA				
Neurriren bat hartuz gero, haien jarraipena egiten da				
Ezarritako epean egin dira				
Operadoreak aplikatutako neurri zuzentzaileak eraginkorrak izan dira				
Neurri osagarriak eta larriagoak hartzen dira epeak betetzen ez direnean edo ezarritako neurriak gauzatzen ez direnean				

* Bat ez badatoz, kontrola baliogabetzen duten irizpideak

GAINBEGIRALEAREN SINADURA IKUSKATZAILEAREN SINADURA